

## **EAEko IRAKASLEAK**

### **ZERBITZU EGINKIZUNAK (Osasun arrazoiengatik)**

Ebazpena ostiral honetan aterako dela adierazi digute eta eskaerak aurkezteko epea hurrengo astetik aurrera irekiko omen da.

### **IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN HAUTAKETA-PROZESUA**

Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendak otsailaren 2an [Hezigunean](#) argitaratu zituzten. [Informazioa](#).

### **EPE 2022. OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA**

Batzorde barematzaileak merezimenduak argitaratzen hasi dira (espezialitate batzuetan).

Gogorarazten dizuegu proba bakoitzean lortutako behin-behineko kalifikazioen aurkako erreklamazioak online soilik aurkeztu ahalko direla.

### **EPE 2022. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA (Merezimendu-lehiaketa)**

Hautatutako eta karrerako funtzionario izendatzeko eskubide galtzen duten pertsonen bigarren zerrenda osagarriaren bigarren aldaketa. [Agindua](#).

## **LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK**

### **HEZITZAILEEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA**

Gaur hautatuko dira zozketa bidez, epaimahaikideak. Adi langile finkoak!

### **BITARTEKO LANGILEEN ADINAGATIKO ARRETA ZUZENAREN MURRIZKETA**

Aldeko epaia jaso eta Hezkuntza Sailak prozesua berrabiarazten ez zuenez, bi errekerimendu egin behar izan ditugu.

Gaur sailburuaren agindu bat jaso dugu eta horren bitartez, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariari epaia bete dezala esaten zaion. Hau da, **bitartekoen murrizketak ahalbidetu ditzala.**

Orain, eskaerak aurkezteko, Administrazioak prozesua berrabiaraztea baino ez da geratzen. Prozesua azkartzeko lanean jarraituko dugu!

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN MATRIKULATU!!!**